

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARALDEKO KUADRILLA

Aiaraldeko Kuadrillaren kontrataziorako laguntzen oinarri arautzaileak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu sustapeneko tokiko ekintzetarako laguntza deialdiaren esparruan (2025eko uztailaren 31ko EHAA)

HITZAURREA

Langabezia tasak handitzea COVID-19ak sortutako osasun krisiaren ondorioz gertatutako krisi ekonomikoaren ondorio larrienetakoa da, eta, Aiaraldeko Kuadrillan ere langabezia tasak handitu egin dira. Horregatik, Aiaraldeko Kuadrillak laguntza proiektu bat sustatuko du kontratazioak egiteko, hala, enplegarritasuna hobetzeko eta kontratazioa, lan merkatuaren aktibazioa eta enpresen biziraupena ahalbidetzeko.

Laguntza ekonomikoa emateko proiektua da, langabezian dauden pertsonak kontratatzea ahalbidetzeko. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak dirulaguntza eman du horretarako, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendariaren 2025eko uztailaren 15eko ebazpenaren esparruan. Ebazpen hori EHAAan argitaratu zen uztailaren 31n (3369 iragarkia). Horretarako, diruz lagunduko dira lanaldi osoko zein partzialeko kontratazioak. Laguntza horien izaera kontuan hartuta, eta bat etorritik Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrarekin eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren araubidea onesten duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin, beharrezkoa da honako oinarri arautzaile hauek onestea.

1. artikulua. Xedea

Oinarri arautzaile hauen xedea da arautzea Aiaraldeko Kuadrillak emango dituen dirulaguntzen emakida prozedura. Dirulaguntza horien xedea enpresei eta erakundeei laguntza ekonomikoa ematea da, hala, langabezian dauden eta Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonen kontratazioa ahalbidetzeko, besteen konturako langileekin lan kontratuak formalizatuz, uztailaren 31ko EHAAan (3369 iragarkia) argitaratutako deialdiaren (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren tokiko ekintzak sustatzeko laguntzak) esparruan.

2. artikulua. Onuradunak

Kontrataziorako laguntza hauek jaso ahal izango dituzte pertsona fisiko edo juridiko pribatuek, horien izaera juridikoa edozein izanda ere, betiere lan kontratuak egiten badituzte besteren konturako langileekin eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Aiaraldeko Kuadrillan eta Urduñako udalerrian badute.

Betebehar hauek izango dituzte:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

Aiaraldeko Kuadrillak automatikoki egiaztatuko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela, dirulaguntza eman eta ordaindu aurretik. Dena dela, eskatzaileak berriaz egin ahal izango dio uko egiaztapen horri, eta baldintza hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

- Dirulaguntzen arloko itzulketa betebeharrak egunean izatea.

Honako hauek ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso:

- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako inguruabarren batean dauden enpresa edo erakunde eskatzaileak.

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak edo haiei loturik edo haien menpe dauden erakundeak.

- Enpleguko zentro bereziak, gizarteratze enpresak, eta, oro har, enpleguko merkatu arruntekoak ez diren erakundeak.

- Aldi baterako laneko enpresak, langileak kontratatu eta aldi baterako beste enpresa batzuei lagatzeari dagokionez.

Eskatzailea izaera juridikorik gabeko erakundea bada, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan beharko du, eta, kontrakoa frogatu ezean, Kode Zibilaren 393. artikuluan xedatutakoa aplikatzen dela ulertuko da, erakundeko partaide denari dagokion zenbatekoari dagokionez.

3. artikulua. Kontratazioen betekizunak

1. Kontratazio guztietan, laguntzak jasotzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Kontratuak mugagabeak izan ahalko dira, bai eta ikuskizun publikoetako artisten, teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakineko kontratuak ere. Kontratu horien gutxieneko iraupena 3 hilabetekoa izan behar da.

- Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke, gutxienez lanaldiaren ehuneko 50ekoak.

- Kontratutako pertsonak langabezian eta izena emanda eta alta emanda egon beharko dute Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile gisa, kontratua hasi au rreko egunean.

- Kontratutako pertsonak Aiaraldeko Kuadrillako edozein udalerritan edota Urduñako udalerrian bizi behar du.

- Aiaraldeko Kuadrillak dirulaguntza ebazten duen unean, kontratazioek eginda egon beharko dute.

- Kontratazioek enplegu sorrera garbia ekarri beharko dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak batez beste duen langile kopurua aintzat hartuta.

Kontratazioaren egunean, kontratu berriak batez besteko horren igoera ekarri behar du. Baldintza hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko arrazoi hauengatik azkendu diren kontratuak: bidezko diziplinazko kaleratzeak, dimisioa, heriotza, desgaitasuna, adinagatiko erretiroa, lan denboraren borondatezko murrizketa, langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliabiztasun handia. Aiaraldeko Kuadrillak egoera hori egiaztatu eta ziurtatu beharko du.

- 2024ko uztailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean egiten diren kontratazioetarako emango dira dirulaguntzak, eta hasierako egunaren eta gehienez ere 2026ko ekainaren 30era arteko aldietarako emango da dirulaguntza, baldin eta, aldi hori gutxienez urtebetekoa bada.

Ikuskizun publikoetako artisten, teknikarien eta laguntzaileen kasuan, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egiten diren kontratuetarako emango dira dirulaguntzak, eta hasierako egunaren eta gehienez ere 2026ko ekainaren 30era arteko aldietarako emango da dirulaguntza, baldin eta, aldi hori gutxienez hiru edo sei hilabetekoa bada.

2. Honako egoera hauetan ez da dirulaguntzarik emango:

- Enpresaburuen edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritzako karguen edo sozietate juridikoa diren enpresen administrazio organoetako kideen ezkontideak, ondorengoak eta odolkidetasun edo ahaidetasun harremana duten bigarren mailara arteko (maila hori barne) senideak kontratatzen badira.

- Enpresa batek langile bera kontratatzen badu eta aurreko deialdietan diruz lagundu bada.

4. artikulua. Aurrekontu kreditua

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa eta finantzaketarako aurrekontu kredituen zenbatekoa ehun eta zortzi mila bederatziehun eta hogeita bost euro da (108.925,00 euro), aurrekontu partida honen kontura: 241 471001.

5. artikulua. Finantziazioa, zenbatekoa eta ordainketa

•8.000,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan kontratu mugagabe bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiarekiko proportzionala izango da.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako enpresaren kargura dau den pertsonen urteko ordainsari kostuen, Gizarte Segurantzako kostuen eta Gizarte Segurantzako kuotaren ehuneko 75 gainditu.

•3.000,00 euroko laguntza ikuskizun publikoetako artisten, teknikarien eta laguntzaileen hiru hilabete lanaldi osoko lan kontratu bakoitzeko eta 6.000,00 euroko dirulaguntza sei hilabete edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioetan edo hiru eta sei hilabetera arteko kontratazioetan, dirulaguntzak lanaldiarekiko edota lan egindako denborarekiko proportzionalak izango dira.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du kontratatutako enpresaren kargura dau den pertsonen urteko ordainsari kostuen, Gizarte Segurantzako kostuen eta Gizarte Segurantzako kuotaren ehuneko 75 gainditu.

•Kontratatutako pertsonak honako kolektiboetako batean egonez gero kontratazioaren aurretik:

– Diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrak edo onuradunak.

– 35 urtetik beherako pertsonak.

– Langabezian denbora luzea daramaten pertsonak. Langabezian denbora luzea daramaten pertsonak dira kontratazioa egin aurreko 540 egunetatik gutxienez 360 egunetan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon direnak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu zerbitzu publiko batzuetan.

– 55 urtetik gorako pertsonak.

10.000,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan kontratu mugagabe bakoitzeko. Aldi baterako kontratuen kasuan, dirulaguntza lan egindako denborarekiko proportzionala izango da.

7.500,00 euroko laguntza ikuskizun publikoetako artisten, teknikarien eta laguntzaileen sei hilabete edo gehiagoko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratazioetan edo hiru eta sei hilabetera arteko kontratazioetan, dirulaguntzak lanaldiarekiko edota lan egindako denborarekiko proportzionalak izango dira.

Kasu horretan, dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du enpresaren kargura dau den pertsonen urteko ordainsari kostuen, Gizarte Segurantzako kostuen eta Gizarte Segurantzako kuotaren ehuneko 100 gainditu.

Dirulaguntzaren kopuru guztiek ehuneko 10eko kopuru osagarria izango dute emakumeak kontratatzen badira.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoa, gehikuntza horiek aplikatzean, ezin izango da kontratatutako pertsonaren urteko soldata kostuen ehuneko 100 baino handiagoa izan, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzaren kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Kontratu mugagabeek gutxienez 12 hilabetez iraun dutela egiaztatuko eta ziurtatuko da.

Diruz lagundutako lan kontratuak dirulaguntzaren epealdia amaitu aurretik edo lehen hamabi hilabeteetan azkentzen badira, itzuli egin behar da emandako dirulaguntza. Alabaina, kontratua azkentzeko arrazoia probaldia ez gaintitzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan bada, lan kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Ez da dirulaguntza itzuli beharko kontratua bukatu zaion pertsonaren ordezkoa deialdi hone-tako irizpideekin bat egiten duen langilea bada, betiere bi kontratazio aldien batura, gutxienez, hasierako kontratuaren berdina bada.

Laguntza ordainketa bakarrean emango da, enpresa onuradunak betekizunak betetzen dituela justifikatu ondoren.

6. artikulua. Beste laguntza edo dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Oinarri hauetako kontrataziorako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuk kontzeptu eta xede beragatik emandako dirulaguntzekin edo laguntzekin, honako hauek izan ezik: Gizarte Segurantzak emandako hobariak eta 52 urtetik gorako langabeak kontratatzeagatik onurak, Langabeziatik babesteko sistema aldatzeko eta lan aukerak areagotzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 12ko 45/2002 Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 4. apartatuan enpresentzat ezarritakoak.

7. artikulua. Eskaerak aurkeztea

Kontratatuko den pertsona bakoitzeko eskaera bat aurkeztu beharko da, eta eskatutako dokumentazioa erantsi beharko da.

Eskaerak Aiaraldeko Kuadrillaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira: Telematikoki, web orriaren egoitza elektronikoaren bidez: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillaayala/web/catalogoAsuntos.do?opcion=5&palabrasBusqueda=&lineasPagina=100&pagina=1&entidad=A-YALA_CU&idioma=1.

Aiaraldeko Kuadrillaren webgunean dago: <https://www.cuadrilladeayala.eus/eu/>.

Eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egu-netik hasita. Azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera igaroko da.

8. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek Aiaraldeko Kuadrillaren webgunean (www.cuadrilladeayala.eus/eu) eskuragarri egongo den eskaria bete beharko dute eta egoitza elektronikoaren bitartez bidali beharko dute.

Dirulaguntzaren eskaera orrian kontratuaren iraupena eta lanaldi mota adierazi beharko dira.

Aiaraldeko Kuadrillak eskaera ebaluatzeko egokitzat jotzen dituen agiriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari. Era berean, beharrezko egiaztapenen bidez, ekintzen kontrola eta jarraipena egin ahal izango du.

Eskaerarekin batera, gutxienez honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Foru Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean izateari buruzko indarreko ziurtagirien fotokopia. Ziurtagiri horiek 6 hilabeteko balioa izango dute, ematen diren egunetik zenbatzen hasita, aurka egonez gero.

- Foru Ogasuneko jarduera ekonomikoan (JEZ) altan emanda egotearen egiaztagirri eguneratuaren fotokopia.

Langile autonomoak izanez gero:

- Indarreko IFK/IFZren fotokopia.

- Gizarte Segurantzako autonomoen araubidean alta emanda egotearen fotokopia edo Gizarte Segurantzako uneko egoeraren ziurtagiria.

Pertsona juridikoak izanez gero:

- Indarrean dagoen IFKren fotokopia.

- Eratze eta eraldaketa eskrituren fotokopiak, horrelakorik izanez gero.

- Ordezkaritza ahalordeen fotokopia.

- Legezko ordezkariaren indarreko IFZren edo AIZren fotokopia.

Sozietate zibilak, ondasun komunitateak edo bestelako elkarteak izanez gero:

- Indarrean dagoen IFKren fotokopia.
- Eraketa eskrituren fotokopia edo estatutuena edo behar bezala erregistratutako eraketa kontratuaren fotokopia.
- Ordezkatzeko ahalmenen fotokopia.
- Legezko ordezkariaren indarreko IFZren edo AIZren fotokopia.

Kontratututako langilearen datuak adieraziko dira eta oinarri hauetan eta Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren- zuzendari nagusiaren 2025ko uztailaren 15eko ebazpenean (Enplegua sustatzeko tokiko ekintzen laguntzen deialdiarena) jasotako betekizunak betetzen direla justifikatuko da. Kontratu mota eta kontratuaren iraupena.

Kontratututako den pertsona bakoitzeko eskaera bat aurkeztu beharko da, eta eskatutako dokumentazioa erantsi beharko da.

Eskatzaileak daturen bat faltatzen badu, dagokion araubide zigortzailea ezarri ahal izango zaio.

Eskaerarekin batera kontratatutako pertsonari buruz aurkeztu beharreko gutxieneko dokumentazioa:

- Kontratututako pertsonaren datuak.
- Kontratututako pertsonaren NANA.
- Erroldaren ziurtagiri historikoa.
- Kontratututako pertsonaren lan bizitzaren txostena (kontratatu aurreko urte eta erdi eta kontratatu ondorengo eguna jaso behar ditu gutxienez).
- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak kontratua hasi aurreko azken 18 hilabeteetan egindako inskripzio aldien ziurtagiria.
- Lan kontratuaren kopia.
- Dirulaguntzaren xede den kontratutako pertsonak lanean hasi aurreko sei hilabeteetan enpresan zegoen batez besteko plantilla osoaren ziurtagiria. Ziurtagiri hori Gizarte Segurantzak ematen du.
- Kontratua egin ondorengo egunean enpresan dagoen plantillari buruzko ziurtagiria. Ziurtagiri hori Gizarte Segurantzak ematen du.
- Kontratututako pertsona lehentasunezko kolektibo batekoa dela egiaztatzen duen agiria.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, irizpide objektiboen arabera, eta horien haztapena modu honetan egingo da:

- Lehentasunezko kolektibo hauetako bat kontratatzen duen erakundea (5 puntu):
- Emakumeak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- 55 urtetik gorako pertsonak.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonak.
- Langabezian denbora luzea daramaten pertsonak.

Langabezian denbora luzea daramaten pertsonak dira kontratazioa egin aurreko 540 egunetarik gutxienez 360 egunetan enplegu eskatzaile gisa inskribatuta egon direnak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan.

- Gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonak.

Gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonak dira diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrak, haien bizikidetzaren unitateko kideak, eta honako hauek:

– 18 urte baino gehiagoko eta 30 urte baino gutxiagoko gazteak, adingabeak babesteko erakundeetan daudenak.

– Drogamenpekotasun arazoak edo adikzio nahasmenduak dituzten pertsonak, errehabilitazio edo gizarteratze prozesuetan daudenak.

– Espetxeetan dauden pertsonak, betiere enplegua izan badezakete eta horien lan harremana uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretuan araututako lan harreman bereziaren alorrean ez badago, baita baldintzapeko askatasuna duten pertsonak eta preso ohiak ere.

– Barneratuta dauden adingabeak, Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio eremuan daudenak, eta, enplegua izan dezaketenak, baldin eta horien lan harremana lege horren araubidearen (uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena) 53.4. artikuluan xedatutako lan harremanaren aplikazio eremuan ez badago, bai eta zaintzapeko askatasun egoeran daudenak eta preso ohiak ere.

– Alojamentu alternatiboetako zentroetatik datozen pertsonak, betiere zentro horiek Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritzaren eskudunen baimena izanez gero.

– Familia erantzukizunak dituzten emakumeak. Familia erantzukizunak dituzten emakumeak dira beren kargua ezkontidea edota 26 urte baino gutxiagoko seme-alabak edo 26 urtetik gorako seme-alaba ezgaituak edo harrerako adingabeak dituztenak.

– Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak.

• Lanaldi osoko kontratua: (5 puntu).

• Lanaldi partzialeko kontratua: (2 puntu).

• 5 langile baino gutxiagoko enpresak (3 puntu).

• 5 eta 25 langile artean duten enpresak (2 puntu).

• 25 langile baino gehiagoko enpresak (puntu 1).

Enpresako langile kopurua egiaztatzeko agiria, dirulaguntzen kontratuak izango dituzten langileak laneratu aurreko sei hilabeteetan zehar enpresako plantillaren batez bestekoaren ziurtagiria izango da.

Balorazio irizpideak ezarri ondoren, lehentasuna izango dute emakume bat kontratatzea aurreikusten duten eskaerak, gehienez ere, dirulaguntza jasotzeko aurreikusitako kontratazioen ehuneko 50era arte.

Puntuazioetan berdinketak gertatuz gero, balorazio fasea edozein izanda ere, eskaerak Aiaraldeko Kuadrillako erregistroan aurkeztutako ordenaren arabera jardungo da.

Eskuragarri dagoen kreditua bukatzen duen dirulaguntza ordaintzeko saldoa nahikoa ez bada, gainerako kreditua gehituko zaio, eta gehienez ere, dagokion zenbatekoa osatu arte, betiere soberakinak egonez gero, enpresa onuradun batek dirulaguntzari uko egin diolako edo baldintzaren bat bete ez duelako.

Aukera hori interesdunei jakinaraziko zaie, luzatu ezingo den hamar eguneko epean dirulaguntzaren proposamena onartzeko. Eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartu ondoren, emate egintza xedatuko da eta jakinarazpena egingo da.

10. artikulua. Emate prozedura

Hemen araututako dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira, objektibotasun, gardentasun, berdintasun eta publizitate printzipioen arabera.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, sustapen ekonomikoko teknikariak eskaerak eta dokumentazioa aztertzeko aurretiazko fasea hasiko du, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

Eskaerak guztiz betetzen ez badira edo eskatutako agiri guztiak aurkezten ez badira, pertsona edo erakunde interesdunari hamar egun baliouduneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Halaber, berariaz adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan jasotako moduan emandako ebazpena eman ondoren.

Espediente osoa, eskaeraren txostenarekin batera (bertan jasoko dira gauzatutako jarduketak eta horien emaitza) Aiaraldeko Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzarrari bidaliko zio (ebazpena emateko organoa den heinean, ebaluazio eta jarraipen batzorde gisa jardungo du, kuadrillako sustapen ekonomikoko teknikariaren aholkularitzarekin).

Organo horrek, balorazio txosten tekniko hartuz eta espedientean jasotakoaren arabera, behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, eta proposamen hori pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraziko die, eta 10 eguneko epea emango die alegazioak aurkezteko.

Alabaina, entzunaldi izapide hori albo batera utziko da pertsona edo erakunde interesdunak argudiatutako alegazioez eta frogez gainera bestelako egitaterik ez badago eta horiek kontuan hartzen ez badira. Halakoetan, ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

Pertsona edo erakunde interesdunak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, organo erabakitzaileak, aurretiaz txosten tekniko egin ondoren, behin betiko ebazpena emango du. Behin betiko ebazpen horretan, pertsona edo erakunde onuradunen izena edo izendapena, identifikazio fiskaleko zenbakia, dirulaguntza jasoko duen kontratazioa eta gehienezko zenbatekoa agertuko dira.

11. artikulua. Ebazpena

Lehendakariak edo Tokiko Gobernu Batzarrak ebazpena eta arrazoiak emango ditu ebazpen proposamena aztertu ondoren, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera zenbatzen hasita gehienez ere sei hilabeteko epean. Ebazpenak dirulaguntza jasoko duten eta eskaera ezetsi zaien pertsona edo erakunde eskatzaileen identifikazioa jasoko du. Ezesprenak behar bezala arrazoituta egongo dira, eta emateetan, laguntzaren xedea eta zenbatekoa adierazi beharko dira.

Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik jakinaraziko da.

Laguntza emateko ebazpenean, gainera, pertsona edo erakunde onuradun izateko oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete arren oinarri hauetan ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu delako onartu ez diren eskaera guztien zerrenda ordenatua jaso ahal izango da. Horrez gainera, balorazio irizpideen arabera bakoitzari emandako puntuazioa jaso beharko da, soberakinak egonez gero (enpresa onuradunak dirulaguntzari uko egin diotelako edo ezarritako baldintzak bete ez dituztelako), aplikatzeko.

Hortaz, soberakinak badago enpresa onuradunak batek dirulaguntzari uko egiten dielako edo ezarritako baldintzak bete ez dituztelako, dirulaguntza puntuazio hurrenkerako hurrengo eskatzaile edo eskatzaileei ematea erabaki ahal izango du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Aukera hori pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaie, luzatu ezingo den hamar eguneko epean dirulaguntzaren proposamena onartzeko. Dagokion pertsonak edo erakundeak proposamena onartu ondoren, emate egintza xedatuko da eta jakinarazpena egingo da.

12. artikulua. Justifikazioa eta eskubidea galtzea/itzultzea

Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntza behar bezala erabili duela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du Aiaraldeko Kuadrillaren egoitza elektronikoan, diruz lagundutako kontratazio urtea betetzen denetik edo, emateko ebazpena beranduagokoa izanez gero, ebazpena ematen den egunaren ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean; 2025eko ekainaren 30ean hasitako kontratuen kasuan, 2026ko ekainaren 31 baino lehen; edo, ebazpenaren eguna 2026ko ekainaren 30a baino beranduagokoa bada, hilabeteko epean. Justifikazio agirien artean, honako hauek sartu beharko dira:

- Memoria, kontratatutako pertsonak, egindako lanaldia eta zer kolektibotakoak diren zehaztuta eta datu guztiak sexuaren arabera berezita.

- Horien soldata eta gizarte segurantzako kostuak. Kostuak hilabeteka banakatuta dituen excel fitxategia entregatu behar da, eta bat etorri behar du aurkeztutako frogagiriekin. Excel fitxategia eta laburpen taula diruz lagundutako aldiari buruzkoak baino ez dira izango (azken hilabeteko nomina dagozkion egunetan hainbanatuko da).

- Diruz lagundutako aldiko nominak eta kotizazioen likidazio ordainagiriak, dagozkien ordainketa frogagiriekin batera.

- Oinarri hauetako kontrataziorako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta xede beragatik emandako dirulaguntzekin edo laguntzekin, honako hauek izan ezik: Gizarte Segurantzak emandako hobariak eta 52 urtetik gorako langabeak kontratatzeagatiko onurak, Langabeziatik babesteko sistema aldatzeko eta lan aukerak areagotzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 12ko 45/2002 Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 4. apartatuan enpresentzat ezarritakoak.

Dokumentazio hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak betebeharrak aitortuko ditu eta dagozkion zenbatekoak ordainduko ditu.

Aiaraldeko Kuadrillak beharrezko ikuskaritza eta kontrol ekintzak eskatu ahal izango ditu, bermatzeko oinarri hauetako xedea betetzen dela. Era berean, pertsona edo erakunde onuradunek jarraipen eta kontrol jarduketak ahalbidetzeko laguntza eskaini beharko dute.

Justifikaziorik egiten ez bada, justifikazioa nahikoa ez bada edo Dirulaguntzen Lege Orokorren 37. artikuluan jasotako inguruabarrak gertatuz gero, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Lan kontratuak dirulaguntzarako epearen aurretik bukatuz gero, eskubidea galduko da dirulaguntza kobratzeko edo itzuli egin beharko da, lan kontratua bukatzearen arrazoa honako hauetako bat bada izan ezik: probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna. Halakoetan, lan kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzearen bidez kotasuna deklaratzeko prozedura Dirulaguntzen Lege Orokorren 42. artikuluan ezarritakoa izango da.

Emandako dirulaguntza itzuli beharko da eta dagozkion berandutze interesak eskatuko dira (ordainketa egunetik itzulketaren bidez kotasuna erabakitzen den egunera arte), Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean jasotako kasuren bat gertatuz gero.

Betekizunen bat betetzen ez bada eta urratze hori enpresari edo hark kontratatutako pertsonari egotz badakioke eta, horren ondorioz, Lanbidek emandako eta kuadrillak jaso beharreko dirulaguntza murrizten bada, zenbateko horiek laguntza jasotzen duen pertsonari edo erakundeari egotziko zaizkio, dagozkion murriztapenekin eta modu proportzionalan.

Itzultze prozedura Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat etorritik izapidetuko da, eta Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez ebatziko da; beti egin behar da entzunaldi izapidea.

13. artikulua. Enpresa onuradunen betebeharrak

Oro har, dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek oinarri hauetan xedatutakoak bete beharko dituzte, bai eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoa, Dirulaguntzen Lege Orokorraren araubidea onesten duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoa eta, bereziki, honako hauek:

- Dirulaguntzaren xede den kontratua egin dela egiaztatzea eta dirulaguntza emateko oinarri izan diren betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- Dirulaguntza emateko oinarri izan diren inguruabar subjektiboak edo objektiboak aldatu direla jakinaraztea, eta, bereziki, kontratatutako pertsonaren lan kontratua eten dela edo pertsona hori ordezkatu dela jakinaraztea, hala badagokio.
- Jarduera berdinentzako, ondoren, beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa jakinaraztea.
- Eskatutako informazio guztia ematea, emandako dirulaguntzarekin lotutako egiaztatze eta kontrol jarduketak betetzeko.

14. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Arau hausteen eta zehapenen araubidea Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen eta 887/2006 Errege Dekretu bidez onetsita zen araubideak xedatuko dute.

15. artikulua. Datuen babesa

Dirulaguntza eskaera aurkeztean, erakunde eskatzaileak onartzen eta adierazten du bete egiten dituela deialdian ezarritako betekizun guztiak eta oso-osorik onartzen duela bertan jasotako guztia.

Dirulaguntzaren eskaera aurkezteak berekin dakar bertan jasotako datuak beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei lagatzea edo jakinaraztea onartzea, aipatutako legean aurreikusitako kasuetan, bai eta Aiaraldeko Kuadrillak datu horiek tratatzeko berariazko baimena ematea ere, betiere adierazitako helburuak betetzeko.

16. artikulua. Erakunde onuradunek dirulaguntzaren publizitatea egitea

Erakunde onuradunek berariaz adierazi beharko dute Aiaraldeko Kuadrillaren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa dutela, deialdi honetan finantzatutako jarduera guztietan, jarduera horiek hedatzen, zabaltzen, edo, hala badagokio, argitaratzen badira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Xedapen gehigarri bakarra.

Oinarri arautzaile hauetan berariaz jasota ez dagoen guztirako, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, aplikatu beharreko gainerako garapen edo sektore araubidea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta, haien izaera dela eta, aplikatu beharreko gainerako arau xedapenak.

AZKEN XEDAPENA

Azken xedapen bakarra.

Oinarri hauek indarrean jarriko dira Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2. artikulua araberara.

Arespalditza, 2025eko azaroaren 21a

Lehendakaria
IÑIGO PINEDO VADILLO